



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Akerrarena

Okerrak akerrak adarrak, baina zuzen joaten dira militarrek, fusilak sorbaldan eta belaunak eta kokotsak gora, lerro-lerro, paper kuadrikulatu bat nola, formazio ia perfektuan. Eskuak kope-tara jasota agurtuko dituzte kargudunak, hortza hortzaren kontra estututa, matraileko giharrak tenkatu-rik, ia ezpaineak dardara egiteraino. Batzuetan esperantza izaten dut ez ote zaien, tenkatzearen tenkatzez, haginaren bat apurtuko, intxaur osko-lak nola, krak. Edo ez ote den bizka-rrezur zurrunez horietan pitzadura-rik sortzen, malgutasunik gabeko edozein objektutan fisikaren lege ez-kuturen baten arabera sortu ohi den moduan. Hortxe ikusi ditut pantaila-ren beste aldean, milaka gorputz gorputz bakarrean bildurik, milaka oin pauso batean, milaka ezdarri ar-nasketa bakarrean. Eta akerra, adar-rak oker, aurrean.

Irri egin diot telebista-kate guz-tiek etxera sartu didaten perfor-mance garaiz eta tokiz kanpokoari. Eta ondoren, serio erreparatu diot nire irriari. Nondik ote datorren. Nora ote doan. Betidanik egin izan baitit grazia bere burua serioegi hartzen duen jendeak, izurri horre-tatik salbu dagoen egorik ez dagoela badakidan arren. Ez da hori baka-rrik, ordea, masailak zabaltzen diz-kidana.

Espainiako bandera erraldoiak iku-si ditut airean, eta trazu zahar bati egindako gurtza gehiegizko bat. Umetan erakutsi zidaten harrotasu-na ona zela, baina harrokeria ez. Bata bestearen jarraipen logikoa balitz bezala. Gerora ikasi dut harrokeria harrotasunetik baino gertuago egon ohi dela konplexutik, norberak bere

sentitzen ez duen nagusitasun bat erakusteko premiatik. Konplexuak handikeriaz, epikaz estali nahi izate horrek beti eragin izan dit erruki gi-sako zerbait. Eta errukia beti izaten da bertikala, goitik beherakoa.

Nazioa ospatzen du bere nazioaz ziur ez dagoenak; bere burua arris-ku zehaztugabe batek inguratuta sentitzen duenak. Eta guk, nazio hori ospatzen ez dugunok, gure dis-tantziaren talaiatik xehe-xehe azal-duko dugu zer dagoen ospakizun ho-rreren oinarrian: zenbat soldadu, zenbat hildako, zenbat azpiratu. Gal-detu gabe gutako zenbat aritu ziren

soldadu, hiltzaile eta azpiratzaile la-netan.

Eta ustezko distantzia horren ta-laian gure buruari galdetu gabe era-kutsi behar horrek soilik osatzen ote duen “estatua” deitzen diogun izaki bizidun abstraktu hori. Polizia, ejer-tzitoa: etsai armatu harro eta identi-fikagarri bat. Ez ote dagoen, horren guztiaren azpian, desfile ezkutuago bat, gure gorputzak eta pentsamen-duak ere zeharkatzen dituen; Ma-drila eta Parisa begira jartzen gaitue-na. Komunikazio sistema oso bat, hizkuntzarena hautu soil bat dela pentsarazten diguna eta akerrak bai-no adar okerragoak dauzkana. •



Akerra urriaren 12ko Espainiako armadaren desfilean.

Oscar DEL POZO CANAS | AFP

arkitektura / geltokiak

3 BEGIRADA: